

21/2026 Irizpena, ekainaren 17koa: Foru Dekretuaren proiektua, zeinaren bidez hobetzen baitira Onura Publikoko Mendien Katalogoa eta Mendi Babesleen Katalogoa eta aldatzen baitira otsailaren 17ko 59/1992 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Mendien Erregelamenduko zenbait artikulua.

Eskatzailea: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Txostengilea: Hugo López López

Interesa: otsailaren 17ko 59/1992 Foru Dekretuaren bidez onartutako Mendien Erregelamenduaren aldaketei buruzko oharak

Hauek dira proiektuaren helburuak: Onura Publikoko Mendien katalogazioa eguneratzea, katalogoaren mugak gehiago zehaztea, 1912an katalogoa osatzeko erabilitako baliabideen berezko akatsak eta zehaztugabetasunak zuzentzea, eta deskribapenak lotzea kontsultatzen ahal den geruza kartografiko batekin. Katalogoa eguneratuz, sinplifikatu egin nahi dira Onura Publikoko Mendien Katalogoa mantentzeko lanak, eta, bestalde, estaldura eman nahi zaio katalogatutako mendi batzuetako kudeaketa tradizionalaren erregularizazioari, zeinaren arabera, jabe pribatuek zuhaitzietako lurgain-eskubideak baitituzte.

Proiektuaren izapidetzeari dagokionez, Kontseiluak uste du zuzenbidearen arabera izan dela. Hala ere, kontuan izanik proiektua departamentuei jakinarazi zitzaientetik –2020ko abendutik– igarotako denbora eta ondoren egindako aldaketak, gomendagarria izango zen proiektuaren testua berriro bidaltzea Nafarroako Gobernuako departamentu guztiei.

Edukiari dagokionez, honako atal hauek ditu proiektuak: zioen azalpena, hiru artikulua, xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat. Horrez gain, bi eranskin ere izanen ditu: I. eranskina (Nafarroako Onura Publikoko Mendien Katalogoari buruzkoa) eta II. eranskina (Onura Publikoko Mendien Katalogoko fitxa deskribatzaileei buruzkoa).

Lehenengo artikulua Nafarroako Onura Publikoko Mendien Katalogoaren eguneratzeari eta deskribapen kartografikoari buruzkoa da. Lehenengo apartatuan, Nafarroako Onura Publikoko Mendien Katalogoa eguneratzen dela xedatzen da, proiektuak xede duen arauaren I. eranskinean adierazitakoaren arabera. Bigarren apartatuan, 1912ko Onura Publikoko Mendien Katalogoaren deskribapen kartografikoa onesten da (proiektuaren II. eranskinean jasotzen da).

Bigarren artikuluan, aipamena egiten zaio Mendien Erregelamenduaren aldaketari, zeinak 13/1990 Foru Legea garatzen baitu (13/1990 Foru Legea, abenduaren 31koa, Nafarroako Oihan-ondarea

Babestu eta Garatzeari buruzkoa) eta otsailaren 17ko 59/1992 Foru Dekretu bidez onetsi baitzen. Kontseiluak egindako oharretatik, honako hau nabarmendu behar da:

18. artikuluko aldaketaren bidez, proposamenean zabaldu egiten dira Onura Publikoko Mendien Katalogoko datuak zuzentzeko kasuak. Hala, kontuan hartuko dira, lehengoez gain, akats grafikoak, epaiak eta pribatu gisa erreklamatzaren diren azalerak ere. Nafarroako Kontseiluaren ustez, baliteke aldaketa horiek eragina izatea hirugarrenen eskubideetan eta aldaketak eragitea jabetza pribatuaren mugetan hirugarrenen eskubideetan eta aldaketak eragitea jabetza pribatuaren mugetan. Ondorioz, beharrezkoa izanen litzateke mugaketa-prozedura bat martxan jartzea. Hortaz, proiektu fasean den arau berrian jasotako kasu berriak izan beharko lirateke, argi eta garbi, hirugarrenen eskubideak ukituko ez dituzten akats material edo egitatezkoen zuzenketak, eta zalantzarik ez sortzeko eran egon beharko lirateke idatzita.

Bestalde, ez du beharrezkotzat jotzen epai judizialak aipatzea, jadanik badagoelako ebazpenak betearazteko legezko betebeharra.

«Antzeko izaerako beste batzuk» kontzeptua zehaztugabea dela irizten dio Kontseiluak, eta segurtasun juridikoaren printzipioaren aurkakoa.

Bestalde, pribatu gisa erreklamaturako azalera kasuen barruan sar litezke jabetza-gatazkak ere, baina horiek dagozkien prozeduren bidez konpondu behar dira.

Nafarroako Kontseiluaren ustez, baso-gaietan eskumenak dituen zuzendaritza nagusiko titularrari eskumena emanez gero Onura Publikoko Mendien Katalogoko datuetan zuzenketak egiteko, baliteke erregelamendu-mailako arau baten edukia administrazio-egintza baten bidez aldatzen ari dela jotzea, eta hori ordenamendu juridikoaren aurkakoa izanen litzateke. Kontseiluak antzeko oharra egiten du 3. apartatuari buruz ere; izan ere, apartatu horretan, baso-gaietan eskumenak dituen zuzendaritza nagusiko titularrari eskumena ematen zaio mendien deskribapen-fitxa eta kartografia eguneratzeko.

Mendien aprobetxamenduei buruzko 77.7 artikulua aldaketari –eta, zehazki, antolamendu-proiektuak onesteari– dagokionez, Kontseiluaren ustez, gai horiek onets daitezke baso-gaietan eskumenak dituen zuzendaritza nagusiaren ebazpen bidez –arau-proiektuan jasotzen den moduan–, kudeaketa-tresnak baitira eta ez plangintza-arlokoak.

Mendien Erregelamenduaren 81. artikuluari 4. apartatua gehitu zaio, katalogaturako mendietako zur- eta egur-aprobetxamenduei buruzkoa.

Hala, apartatu horren arabera, toki-entitateak hirugarren baten jabetzatzen aitortutako zuhaiztietako lurgain-eskubide bat badago, aukera egonen da hirugarren horri baso-mozketa egiteko baimena emateko. Mendien Erregelamenduaren 82. artikuluan oinarritzen da aukera hori, zeinetan katalogatu gabeko mendietako aprobetxamenduak baimentzeko espedienteak arautzen baita. Aukera horrek zalantzak sortzen ditu, katalogatutako mendiek jabari publikoko araubidea baitute. Nafarroako Kontseiluak zalantzan jartzen du toki-entitate batek «lurgain-eskubide» pribatu bat aitortu ote dezakeen jabari publikoko ondasun baten gainean, hartarako prozedura jakinik gabe.

Egiaz, lurgain-eskubide hori zuhaiztiaren gaineko jabetza-eskubide erreal bat izanen litzateke, eta ez baso-aprobetxamendu huts bat. Beraz, eskubide hori lurgain-eskubidearen araubidea jarraituz eratu beharko litzateke, eta Mendien Katalogoan jaso (Nafarroako Foru Zuzenbidearen Konpilazioa edo Foru Berria).

Hirugarren artikuluan, Nafarroako Mendi Babesletzetan jotzen dira III. eranskinean jasotako lurak, inolako eragozpenik gabe.

Xedapen iragankorraren arabera, onura publikoko mendietan pribatutzat erreklamaturako azalerak baldin badaude, toki-entitateek 10 urteko epea izanen dute zehazteko azalera hori publikoa ala pribatua den. Nafarroako Kontseiluak zalantzan jartzen du betebeharrak hori, eragina baitu onura publikoko mendien babes-araubidean (Nafarroako Baso Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko Foru Legea eta Mendien Erregelamendua onesten duen Foru Dekretua). Katalogoan sartutako mendien edukitzea publikoa da, eta epai irmo bidez edo egoki diren prozeduren bidez baino ezin dira aldatu.

Halaber, zalantzan jartzen da Erregelamenduaren 18.2 artikuluari buruzko aipamena. Izan ere, artikulua horretan, datuen akats-zuzenketak arautzen dira, eta ez datuen aldaketak.

Kontseiluak ondorioztatzen du irizpenaren xede den araua bat datorrela legeetan ezarritakoarekin, baldin eta kontuan hartzen badira irizpenean bertan egindako oharak.